



HEZITZAILE ORDEZKOEI ENPRESAK JAKINARAZI BEHAR DIE KONTRATU GABE GERATU DIRELA

Haurreskolak Partzuergoko gerente eta Pertsonal buruari, Zorione Etxezarraga eta Bego Barranko,

Nahiz eta gai hau ez den berria inorentzat, azken asteetan bizi dugun egoerarekin areagotu egin den dinamika bat dela baieztatu izan ahal dugu, hezitzaile batzuk gurekin kontaktuan jarri ostean: inork ez die abisatu kontratua bukatu zaiela edota indarrean dutenak jarraipenik ez duela izango. Ondorioz, lanean jarraitu dute aldaketa horretaz jabetu diren arte, baita azken asteetan ere.

Mezu honen bitartez gogorarazi nahi dizuegu kontratuak amaitu izanaren jakinarazpena enpresari dagokiola. Ardura hau ezin da hirugarren baten esku utzi soilik (koordinatzailea, titularra), enpresaren betebeharra baita baieztatzea ordezekoak beraien egoeraren berri dutela.

Haurreskolak Partzuergoak ardurak bere gain hartzen ez duen bitartean, hezitzaile ordezekoak izango dira kaltea jasango dutenak, beti bezala.

Ikasturtean zehar dagoeneko egin bezala, berriz eskatzen dizuegu hezitzaile ordezekoen egoera aintzat hartzea eta begirunez tratatzea. Beraien kontratuak bukatzen direnean, enpresarena da jakinarazpena egitearen ardura.

Oraingoan eskaera kontuan hartzea espero dugu, egoera hauek errepikatu ez daitezzen.

2020ko apirilaren 28a

STEILAS



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus